Azpeitiko Udala

EMAKUMEEI ETA LGTBIQ+ PERTSONEI ZUZENDATUTA IKUSPUNTU FEMINISTATIK AHOLKULARITZA PSIKOLOGIKOKO ZERBITZUA ESLEITZEKO BALDINTZEN PLEGU TEKNIKOAK

1.- XEDEA:

Oinarri hauen xedea, Azpeitiko Udalak, bere berdintasun eta LGTBIQ+ politikaren barruan ikuspegi feminista duen Azpeitiko Aholkularitza psikologikoko zerbitzua esleitzeko baldintza teknikoak arautzea da.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Biolentzia Matxistarik gabeko emakumeen bizitza libreen **1/2022 Legeak**, martxoaren 3koak; Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen bigarren aldaketa duenak, besteak beste, emakumeen ahalduntzea, indarkeria matxistaren kontzientzia hartzeko eta erreparatzeko erakunde publikoen betekizunak, osatze eta erreparazio politikak ahalbidetzeko ibilbideak zehazten ditu. Bestalde, aipamena egiten dio bere printzipio orokorretan sexu- eta/edo genero-identitatea eta sexu-orientazioa askatasunez garatzeko eskubideari eta gorputz-autonomiarako zein autodeterminaziorako eskubideari ere. Horrez gain, jarraian aztergai dugun zerbitzuak, honako bi legeak ezarritakoari ere erantzuten diote: 4/2024 LEGEA, otsailaren 15ekoa, pertsona transak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa eta 4/2023 Legea, otsailaren 28koa, trans pertsonen berdintasun erreal eta eraginkorrerako eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko.

Ondorioz, baldintza agiri honen xedea da ikuspegi feministatik emakumeei eta LGTBIQ+ pertsonei laguntza psikologikoa emateko zerbitzuaren esleipendun suertatzen den erakundeak bere gain hartu eta garatu behar dituen betebeharrak eta baldintza teknikoak deskribatzea.

2.- ZERBITZUAREN HELBURUAK

Ikuspegi feministatik emakumeentzat eta LGTBIQ+ pertsonentzako eskainitako zerbitzuak honako oinarriak eta helburuak ditu:

Azpeitiko Udalean LGTBIQ+ diagnostikoa egin ondoren, hainbat bizi-historio eta pasarteek argi utzi dute herrian dauden min, ondoez eta egonezinak. Bide horretan, zerbitzu honen bitartez, herriko LGTBIQ+ pertsonen ongizatea lehenetsi nahi da, eta erreferentziazko LGTBIQ+ politika publikoak garatu eta esperimentatu nahi dira.

Aurrez aipatu bezala, LGTBIQ+ kolektiboko kideen hainbat ondoez geratu dira agerian: ikastetxean, lagunartean, herrian, aisialdian, kirol taldeetan… beraien sexu-genero identitate edo orientazioagatik bizi izan dituzten gatazka eta horrek sortutako ondoezak tarteko. Planaren baitan ondoez horiei lekua egin, eta herri mailan erreparazio kolektibo eta indibidualean sakontzeko ardura beregain hartu du udalak. Bide horretan, erraparazio kolektiboan herri bezala sortu diren minak arintzeko eta osatzeko saiakera egiteaz gain, egoera horretan dauden edo bizi izan duten LGTBIQ+ pertsonei bidelaguntza bat eskaini nahi zaie, ikuspegi feministatik eta gaian adituak diren psikologo profesionalen bitartez. Gainera, LGTBIQ+ pertsonen familiei edo haiekin lanean ari diren profesionalei ere eskainiko zaie aholkularitza.

Bestalde, **genero ondoez**en lanketa egiteko ere baliatu nahi da zerbitzua. Izan ere, hainbat eta hainbat dira gizon eta emakumeen arteko egiturazko desberdintasunek sortzen dituzten ondoez sozialak, izan harremanetan, lan eremuan, zaintza-arduretan, kontziliazioan… Horrez gain, Emakumeen Txokoan kokatutako aholkularitza feminista batek, indarkeria matxista bizi duten, baina oraindik identifikatzen ez duten emakumeei horretarako erremintak eskaintzea ere bada helburua, bizi duten horren kontzientzia har dezaten. Izan ere, ohikoa da gure zerbitzuetara iristea banaketa zaila izaten ari direnaren aitzakiapean esaterako, bai emakumeak euren kabuz baita beste zerbitzu batzuetatik bideratuta ere, eta bertan ohartzea genero indarkeria egoerak direla bizitzen ari diren horiek. Bestalde, zaintza sarera eta jabetze eskoletara bideraketak egitea ere izango da helburua, indarkeriaren marko estrukturala ulertaraztea errazteko eta emakume horien jabetzean, kontzientzia hartzean eta ahalduntze kolektiboan sakontzeko. LGTBIQ+ gaietan, indarkeria matxistan eta berdintasunean berariazko formakuntza duten profesionalen bitartez eskainiko da aholkularitza.

Hauek dira helburu zehatzak:

a) Erruduntasun- eta autoexijentzia-sentimenduen kudeaketa: barneko eta kanpoko espektatibekin lotutako karga emozionala ulertzea, eta hori arintzeko estrategiak garatzea.
b) Autoestimua eta ahalduntzea indartzea: norberaren balorazioa, konfiantza eta erabakiak hartzeko gaitasuna bultzatzea.
c) Indarkeria matxistaren kontzientzia hartzea eta erreparazio eta osatzean sakontzea ikuspegi feministatik
d) Mendekotasun emozionala: autonomia afektiboa mugatzen duten harreman-dinamikak identifikatzen ikastea eta horiek lantzea.
e) Mugak jartzea ikastea: harreman pertsonal eta sozialen muga argiak ezartzeko eta mantentzeko trebetasunak garatzea.

f) Erregulazio emozionala: emozioak modu osasungarrian ezagutzeko, adierazteko eta maneiatzeko tresnak sustatzea
g) Gatazken kudeaketa: desadostasunei edo tentsioei aurre egiteko eta konpontzeko estrategiak garatzea.

3. ZERBITZUAREN ONURADUNAK

Zerbitzuaren onuradunak honako hauek izango dira:

• Azpeitiko udalerrian bizi diren emakumeak eta LGTBIQ+ pertsonak, edo aholkularitza eskatzen duten beste pertsona batzuk, betiere pertsona horiek egiten duten kontsultaren helburua edozein gai psikologikori buruzko aholkularitza ematea bada haiekin harremana duen emakume eta LGTBIQ+ pertsona bati (senideak, lagunak, etab.)

• Azpeitiko Udaleko Iparrizar zerbitzuko kideek, baita zerbitzu honen xedea behar duten gainerako sailek edo beste eragile batzuek ere.

4. AHOLKULARITZA PSIKOLOGIKOKO LANERAKO LANGILEEN FUNTZIOAK:

- Aholkularitza psikologikoko zuzeneko arreta eskaintzea eta kudeatzea.
- Zuzeneko arretarako hitzorduak Emakumeen Txokoko langileekin koordinatzea.
- Behar konkretuak identifikatzea eta horien berri ematea dagokion agenteari: Emakumeen Txokoko teknikari, Parekidetasun teknikariari, Gizarte Zerbitzuetako arduradunari, Gizarte Langileari, Udaltzaingoari…
- Azpeitiko Udaleko Parekidetasun Saileko teknikariarekin koordinatzea.
- Azpeitiko Emakumeen Txokoko teknikariarekin koordinatzea
- Gizarte Zerbitzu eta Udaltzaingoekin koordinatzea.
- Iparrizar zerbitzuaren baitako lan-moduetan lanean aritzea
- Beharko balitz, ohiko eragileez gain, Azpeitiko beste eragileekin koordinatzea: eskolak, gaztelekua eta ludotekak, anbulategia, Ertzaintza…
- Hala eskatzen bada, erabiltzailearen inguruko txostenak egitea
- Jsotako hitzorduetako kasuen fitxak hilero osatzea, eta eskatzen bada Politika feminista eta LGTBIQ+ sailari aurkeztea
- Politika feminista eta LGTBIQ+ sailari urtean behin balorazio txostena aurkeztea.

5. ZERBITZUEN KUDEAKETA ETA KOORDINAZIOA:

Esleipendunak Emakumeen Txokoan, Goiko Kale 12, behean eta Udalaren jabetzakoa den eraikinean eskainiko du zerbitzua.
Zerbitzu hau emateak, besteak beste, ondorengo konpromiso eta betebeharrak eskatzen ditu:

5.1. Azpeitiko Udalaren betebeharrak:

- Bulegoa uztea, bertako altzari eta oinarrizko ekipamenduarekin.
- Fakturak ezarritako epeen barruan ordaintzea.
- Lokalaren garbiketa eta mantenu lanez arduratzea.
- Zerbitzuaren zuzendaritza eta kontrolaz arduratzea, Politika feminista eta LGTBIQ+ Sailaren bitartez.

5.2. Esleipendunaren betebeharrak:

Zerbitzuari dagokionez:

- Zuzeneko arreta eskaintzea: hilero 6 orduko aholkularitza psikologikoa eskaintzea.
- Herriko emakumeen eta LGTBIQ+ pertsonen beharrak identifikatu eta horiek Politika feminista eta LGTBIQ+ sailari jakinaraztea.
- Arreta eskainitako erabiltzaileen informazio eta datuak hilero jasotzea, eta hala eskatzen bada, Politika feminista eta LGTBIQ+ sailari aurkeztea

  Fitxak, gutxienez, honako atal hauek jaso beharko ditu:

  A) Erabiltzailearen oinarrizko datuak:

  - Identifikazio-datuak
  - Jatorrizko herrialdea
  - Amaitutako ikasketen maila (Derrigorrezko Hezkuntza / Batxilergoa / Lanbide Heziketa / Unibertsitate ikasketak / Bat ere ez)
  - Lan egoera (Ikaslea / Langilea / langabea / Bestelakoak)
  - Bizilekua

  B) Kontsultaren arrazoia

- Urteko memoria Politika feminista eta LGTBIQ+ sailari aurkeztea.

Ebaluazioari dagokionez:

- Hitzordu egunak eta geo, behar den kasuetan, ordu erdiko koordinazioa egingo da Emakumeen Txokoko teknikariarekin.
- Ikasturte amaieran, gutxienez, balorazio orokor bat egingo zaio Politika feminista eta LGTBIQ+ sailari

Politika feminista eta LGTBIQ+ sailarekin izan beharreko koordinazio eta kudeaketari dagokionez:

- Emakumeen eta LGTBIQ+ kolektiboko kideen informazio beharrak ezagutu eta asetzeko estrategiak proposatuko dira.
- Erabiltzaileen eskaerak onartzerakoan ezohiko egoieraren bat badago, Politika feminista eta LGTBIQ+ sailari jakinaraziko zaio erabakiak hartzeko.
- Azpeitiko agente, erakile eta elkarteen inguruko informazioa bildu eta zabalduko da.

6. ZERBITZUAREN JARRAIPENA, ANALISIA ETA EGIAZTAPENA

Azpeitiko Udaleko Politika feminista eta LGTBIQ+ saileko parekidetasun teknikariari dagokio kontratuaren zuzendaritza teknikoa. Zerbitzuaren kontrol eta gainbegiratze orokorra egingo du.

Pertsona, enpresa edo erakunde esleipendunak Parekidetasun sarilari aldizka emango dio zerbitzuaren garapenaren berri, baita sor daitezkeen gorabeheren eta hobetzeko iradokizunen berri ere.

Kontratuaren ardura duen teknikariak behar diren txostenak eskatuko dizkio erakunde esleipendunari egindako esku hartzeei buruz, eta kudeaketa egokirako eta ikuskatze jarduerarako behar diren jarraibide guztiak emango ditu.

Politika feminista eta LGTBIQ+ sailak zerbitzuari buruzko informazio garrantzitsu guztia eduki beharko du, eta edozein unetan gertatzen diren gorabeheren berri izan beharko du.

Pertsona, enpresa edo erakunde esleipendunak artatutako erabiltzaileen datu base bat sortu eta eguneratuta eduki beharko du, Politika feminista eta LGTBIQ+ sailaren iritziz garrantzitsua den informazioa bilduko duena.

7. ZERBITZUEN MAIZTASUNA:

Hau izango da Azpeitiko aholkularitza psikologiko feministako ordutegia:

- Astean behin, asteazkenetan, aste bat goizez (9:00-12:00) eta bestean arratsaldez (15:30-18:30)
- Ikasturte osoan eskainiko da irailetik uztailera, Emakumeen Txokoko egutegia kontutan izanda. Beraz, Gabonetako, Aste Santuetako eta udako jai egunak errespetatuko dira.

Dena den, urte hasiera bakoitzean Politika feminista eta LGTBIQ+ Sailarekin eta Emakumeen Txokoarekin urteko zerbitzu egutegia eta ordutegia zehaztuko dira.

8. BALIABIDE MATERIALAK ETA GIZA BALIABIDEAK:

8.1 - Instalazioa eta ekipamenduak:

Udalak Goiko Kale 12 behean kokatutako lokala eta oinarrizko ekipamendua jarriko du (bulegoko altzariak, ekipamendu informatikoa eta oinarrizko materiala). Argindarra, ura, telefonoa eta interneteko konexio gastuak ere Udalaren kontura izango dira. Oinarrizko garbiketaz ere Udala arduratuko da.

8.2- Giza baliabideak: kopurua, lan-orduak eta profila:

Esleipendunak 7. klausulan jasota dagoen arreta zuzeneko egutegiko ordutegia betetzeko eta gainontzeko kudeaketa edo koordinazio lanak burutzeko beharrezkoak diren giza baliabideak jarriko ditu:

- Zuzeneko arreta eskaintzeko: irailetik uztailera, hilean 6 ordu, urtean (120 ordu)
- Bulego lana eta koordinazioa: 65 ordu

Langileek honako hauek egiaztatu beharko dituzte:

- Psikologiako ikasketak (gradua edo titulazio baliokidea), kontratuaren xedearekin lotutako ezagutza teknikoa, fidagarria eta eraginkorra bermatzeko.
- Gutxienez bi urteko esperientzia egiaztatua ikuspegi feministako emakumeentzako aholkularitza psikologikoan.
- Berdintasunari buruzko prestakuntza, gutxienez 150 ordukoa.
- Euskararen C1 hizkuntza-eskakizuna edo baliokidea izatea.

9. PROIKETUA:

Lehiaketa honetan parte hartu nahi duten enpresek jarduketa memoria bat aurkeztu beharko dute. Egitasmo horretan gutxienez puntu hauk garatu beharko dira:

- Oinarri teorikoa eta lan filosofia
- Helburu orokorra eta helburu espezifikoak
- Lan metodologia eta lan taldearen balioak
- Genero ikuspegia eta intersekzionalitatea txertatzea proiektuan
- Koordinazio eta ebaluazio proposamena

10. DATU PERTSONALAK:

Esleipendunak Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorrak xedatutako bete beharko du. Ondorioz, sekretu profesionalpean gordeko ditu kontratu honen arabera eskuratu ahal izango dituen datu pertsonalak eta agindu hori errespetatu egin beharko du, baita Udalarekin izango dituen harremanak amaitzean ere. Halaber, eskuratutako datuak bakarrik zerbitzu konkretu hau emateko erabili ahal izango ditu, eta ezin izango ditu beste helburu baterako aplikatu edo erabili.

Pertsona edo enpresa esleipendunak behar den konfidentzialtasuna eta sekretua gorde beharko ditu kontratu hau gauzatzeko eskura dituen gertakari, informazio, ezagutza, dokumentu eta bestelako elementuei buruz, eta ezin izango du kopiarik gorde edo edozein helburutarako erabili; bestela, indarrean dagoen legerian aurreikusitako erantzukizunak izango ditu.

Langileei jakinaraziko die udalaren informazioa kontratu honen xedea betetzeko baino ezin dutela tratatu, eta ezagutzen dituzten datu guztiak ez dituztela publiko egin, laga edo besterendu behar.

Konfidentzialtasun- eta sekretu-klausula bat izango du, langileek kontratu hau gauzatzeko sinatzen dituzten lan-kontratuetan deskribatutako baldintzetan.

Kontratuan zehar sortzen diren dokumentu guztiak konfidentzialak dira, eta ezingo dira inola ere kopiatu, ez osorik, ez partzialki, ezta hirugarrenei eman ere, idatzizko berariazko baimenik gabe.

Enpresa esleipendunak honako hauek bete beharko ditu: datuen segurtasunari eta babesari buruz indarrean dagoen legeria, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko 31/2018 Legea, DBEO (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra), Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/1679 (EB) Erregelamendua, datu pertsonalen

tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoen babesari buruzkoa, 2018ko maiatzaren 25ekoa, eta EE 525 Zuzentaraua indargabetzen duena.

Enpresa esleipenduna arduratuko da zerbitzuaren erabiltzaileen datu pertsonalen fitxategiez, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/18 Lege Organikoaren aginduei eta Udal honek ematen dituen jarraibideei jarraikiz, hari baitagokio haren titulartasuna. Enpresa esleipendunak ezin izango ditu erabili eskatu zaion helbururako ez beste ezertarako, eta ezin izango ditu erabili, ezta estatistikarako ere.

Enpresa esleipendunak, kontratuaren prestazioa bete ondoren, eman zaizkion datuak suntsituko ditu, bai eta tratatzen ari den datu pertsonalen bat duen edozein euskarri edo dokumentu ere.

Azpeitian, 2026ko otsailaren 5ean
Malen Aldalur Azpillaga
Parekidetasun teknikaria

MALEN ALDALUR AZPILLAGA - 44346985H

Firmado digitalmente por MALEN ALDALUR AZPILLAGA - 44346985H
Fecha: 2026.02.05 08:21:42 +01'00'